

EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO DEIALDIA

2026 urtea

UPV/EHUko Euskararen IV. Plan Gidarian (2023-2027) pertsonak deritzon ardatz estrategikoaren barruan, zerbitzu eta ikastegietan euskararen erabilera bultzatzea da helburuetako bat.

Hori dela-eta, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak deialdi hau argitaratzen du. Deialdia 2026 urtean zehar zabalik egongo da.

OINARRIAK:

1. HELBURUA ETA MODALITATEAK

Deialdi hau, UPV/EHUko kolektibo guztiei zuzenduta dago. Hortaz, irakasleen, ikertzaileen, TEKAZELEN edota ikasleen eskariak onartuko dira. Eskariak indibidualak izan daitezke, baina taldeen, ikastegien edota bestelako egitura edo batzordeen eskariak hobetsiko dira, adibidez, ikastegi bateko zuzendaritzarena, Euskara Batzordearena edota ikasle-talde batena. Diruz lagundu ahal izango dira unibertsitateko bizitzan euskarari eta euskal kulturari ikusgarritasuna ematea edota euskararen erabilera sustatzea helburu duten ekimenak.

Honako hauek dira modalitateak:

1. modalitatea: Euskaraz antolatutako jarduera akademiko zein kulturalak
2. modalitatea: Korrikarako kilometroak
3. modalitatea: Euskararen eguna

2. ESKAEREN AURKEZPENA

Eskaera ekitaldia egin baino, gutxienez, hilabete lehenago aurkeztu beharko da.

2.1. Aurkezteko tokia. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikulua araberako dokumentuak modu honetara aurkeztu beharko dira:

UPV/EHUko [erregistro elektronikoan](#), URL helbidean, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetza aukeratu behar da (U02000384). "Eskatzen du" atalean, "Euskararen erabilera sustatzeko deialdia 2026" zehaztu behar da.

2.2. Beharrezko dokumentazioa:

- i. Eskaera, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzako webgunean eskura daitekeen eredu erabiliz.
- ii. Aurrera eraman nahi den ekimenaren deskripzioa eta aurrekontua.

2.3. Eskaerak aurkezteko epea: Deialdia 2026ko urtarrilean argitaratuko da unibertsitateko kide guztiek horren berri izan dezaten, eta zabalik egongo da dagokion aurrekontu-ekitaldian edo kreditu erabilgarria agortu arte.

Ezarritako araudia indarrean egongo da oraingoa ordezkatzeko duen hurrengo deialdia argitaratu arte.

3. ESKAEREN TRAMITAZIOA ETA EBALUAZIOA

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordetzak jasotako eskaerak aztertuko ditu, eta 15 egun balioduneko epean jakinaraziko die interesdunei behin-behineko ebazpena.

Erabaki nominalaren bidez jakinaraziko zaio eskatzaile bakoitzari eskaera onartu zaion ala ez. Nolanahi ere, ezespen partziala edo osoa daramaten erabakiek ezezipenaren arrazoia ere jasoko dute.

Behin betiko erabakiak amaitzen du bide administratiboa, eta haren kontra aukerako berraztertze-errekurtsoa ezarri ahal izango da, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordearen aurrean, erabakia argitaratzen denetik hilabeteko epean.

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere ezarri ahal izango da, dagokion administrazioarekiko auzi-jurisdikzioan, erabakia argitaratzen denetik bi hilabeteko epean.

Onartutako dirulaguntzaren zenbatekoa erabaki ondoren, epe bakarrean egingo da ordainketa.

4. FINANTZIAZIOA

Deialdi honek egotzita daukan diru kopurua 20.000 €-koa da. **Behin aurrekontua agortuta ez da diru-laguntza gehiagorik esleituko.**

Kontzeptu finantzagarriak honako hauek dira:

- Erreprografia (kartelak, posterrak,...).
- Euskaraz antolatutako jarduera akademiko zein kulturalak (bilerak, jardunaldiak, ikastaroak, hitzaldiak, bertso-saioak, musika-saioak, antzerki-saioak,...).
- Bestelakoak, deialdiaren helburuekiko koherentzia egokiro justifikaturik badago. Korrikarako ikastegiekin edo unibertsitateko beste talde batzuekin erosten dituzten kilometroen zati bat (eskari kopuruaren arabera).

Kontuan izan administrazio publikoko legearen arabera protokolozko gastuak (janariak, edariak, otorduak...) ez direla finantzagarriak

5. LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Ekitaldia egin ondoren eta egindako gastuen justifikazioa aurkeztu eta onartu ondoren ordainduko da laguntza.

Egindako gastuak justifikatzeko, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- i. Fakturak.
- ii. Aurrera eramandako ekimenari buruzko txostena.

Laguntza ordaintzeko, bi modu egongo dira:

- i. Ikastegiekin bideratutako eskaerak: Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak transferentzia bat egingo dio ikastegiari 041 funtzionalaren

bidez, eta ikastegia arduratuko da zuzenean faktura ordaintzeaz. Horretarako, ikastegiak bere organikan 041 funtzionala sortu beharko du. Dirulaguntza esleitutakoan, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak ikastegiari helaraziko dizkio jarraibideak izapide hori nola egin behar duen azaltzen.

- ii. Gainontzeko eskaerak: Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak ordainduko du zuzenean ebatzitako zenbatekoa. Horretarako, faktura UPV/EHUren izenean jaulkita egon behar du, haren identifikazio fiskala duela (Q4818001B).

6. ZABALKUNDEA

Deialdi honen bidez diruz lagundutako ekimenen zabalkundea antolatzaileek beraiek, beren ohiko eremuan egin beharko dute. Halaber, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordetzak eta Komunikazio Bulegoak ere ekimen guztien zabalkundea egin ahal izateko, ezinbestekoa izango da, eskaeran bertan, honako datu hauek bidaltzea: ekimenaren izenburua, eguna, ordua, lekua eta azalpen laburra.

7. INTERPRETAZIOA

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordeak baimena dauka deialdi honetako arauak argitzeko eta garatzeko.

8. HARREMANETERAKO

euskara.erreord.teknikaria@ehu.eus

Leioan, sinadura digitalaren datan.

Miren Igone Zabala Unzalu

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordea